

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

#### Diputatuen Kontseiluaren 600/2016 Erabakia, irailaren 20koa, onartzen duena Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzura lan egiten dutenen 2016rako ordainsariak igotzea

Ordainsariak direla-eta funtzio publikoan indarrean dagoen lege araubidea hauexek arautzen dute: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren testu bategina onartzen duenak; 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak; haiek garatzen dituzten hainbat arauk eta, bereziki, uztailearen 30eko 207/1990 Dekretuak, euskal administrazio publikoetako funtzionarioen ordainsariak.

Arau horiekin bat etorritik, oinarrizko ordainsarien (soldata, hiru urtekoak eta aparteko ordainsariak) zenbatekoa Estatuak aurrekontu orokorren legeak zehazten ditu, destino-osagarriaren zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen legeak, eta berariazko osagarria eta ordainsari osagarriak Euskadiko administrazio publikoek.

Urriaren 29ko 48/2015 Legearen, Estatuaren 2016rako aurrekontu orokorrenen, 19.2 artikulua hau xedatzen du:

“2016an, sektore publikoan lanean ari direnen lansariak ezin izango dira 2015eko abenduaren 31n indarrean zirenak baino ehuneko 1 baino gehiago izan, erkatzen diren aldi bien homogeneotasuna dela eta, nola langileei dagokienez hala haien antzintasunari dagokionez.”

Ordainsariei dagokienez, urriaren 29ko 48/2015 Legearen 23. Bat. E) artikulua berariaz sartzen ditu horietan produktibitate-osagarria, “lanpostuetan jardutean errendimendu berezia, aparteko jarduera eta arduraldia, eta interesa edo ekimena” saritzeko.

Bestalde, abenduaren 23ko 9/2015 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegokoaren 2016rako aurrekontu orokorrak onartzen dituenak, honako hau ezartzen du 19.1 artikuluan:

“2016. urtean, lan arloko araubidera atxikita ez dauden Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko, erakunde autonomoetako, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoetako langileen urteko guztizko ordainsariak % 1eko igoera izango dute, 2015eko ekitaldian ezarritakoen aldean. Ordainsari horiek, betiere, homogeneotasunaren arabera kalkulatu dira, erkaketaren bi aldiatarako, bai langileen kopuruari eta antzintasunari dagokienez, bai lanaldi araubideari dagokionez.”

Eta 19.8 artikuluan, destino-osagarriaren zenbatekoa xedatzen du.

Aurrekontu zuzkidura nahikoa dagoenez gero, bidezkoa da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzupuan dauden langileen ordainsariak igotzea, 2015. urteko guztizko ordainsarietan %1 aplikatuta.

Bat etorritik urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren, enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua onartzen duenaren, IV. kapituluaren aurreikusitakoarekin -uztailearen 6ko 6/1989 Legearen, euskal funtzio publikoarenaren, VI. tituluaren xedatutakoarekin lotuta-, bete da legegintzako errege dekretu horrek 37. artikuluan aipatzen duen nahitaezko negoziazioa.

Bat etorritik Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egitura eta funtzionamendu arautegia onartzen duenaren, 11.g artikuluan xedatutakoarekin, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuaren zeregin da, erakunde autonomo horren administrazio kontseiluko lehendakari den aldetik, Lehendakaritza Sailarekin koordinatuta, Diputatuen Kontseiluari urtero proposatzea erakunde horri atxikitako langileen ordainsari araubidea eta soldata baldintzak aplikatzea.

Era berean, Diputatuen Kontseiluari dagokio foru administrazio honetako langileen lan baldintzak zehaztea eta onartzea, halaxe xedatzen baitu abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta araubide juridikoari buruzkoak, 178 artikuluan, urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak, ekonomia jardueren eta deszentralizatutako foru zerbitzua publikoen kudeaketari buruzkoak, 9. artikuluan xedatutakoarekin loturik.

Horregatik guztiagatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzuplean dauden langileen ordainsariak igotzea 2016rako, 2015. urteko guztizko ordainsarrietan ehuneko 1eko igoera aplikatuta.

Bigarrena. Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, ALHAOn geroago argitaratu arren, eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Gasteiz, 2016ko irailaren 20a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua*

**BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ**